

**“EAEKO GAZTEEN ENPLEGAGARRITASUNA ETA LAN-MERKATURA SARTZEA
EUROPAKO ESQUALDEKO IKUSPEGI KONPARATZAILTIK” AZTERLANA
KONTRATATZEKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA**

1- AZTERKETAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ESPARRUA

Europako pertsona gazteek lan-merkatura sartzeko zailtasun handiagoak dituztela nabarmendu du krisialdi ekonomikoak, lehen baino modu gordinagoan.

EUROSTATen datuen arabera, euroguneko biztanleria gaztearen langabezia % 23,7koa zen 2014an eta % 22,2koa zen UE28an. Ratio horiek biztanleria helduaren langabezia-tasa bikoizten dute. Hala ere, herrialdeak hiru multzotan sailkatzen dira. Europa erdialdeko herrialdeek eta herrialde eskandinaviar batzuek osatzen duten lehenengo taldea eta horien kasuan, 15-24 urte bitarteko biztanleriaren langabezia-tasa % 20 bueltakoa edo baxuagoa da. Bigarren talde batean sartuko lirakeke Frantzia, Suedia, Erresuma Batua eta Europa ekialdeko zenbait herrialde, % 20 eta % 30 bitarteko tasekin. Azkenik, erregistrorik txarrenak dituen taldea legoke. Irlandak eta Europa hegoaldeko herrialdeek osatzen dute, krisialdiak gogorren astindutako herrialdeek, hain zuzen ere. Grezia eta Espainia dira nabarmenenak, % 50 inguruko tasak edo altuagoak dituztelako.

Datu horiek erakusten dutenez, EB osatzen duten herrialdeen artean alde handia badago ere, Europa hegoaldeko herrialdeetan arazoa askoz ere nabarmenagoa da.

Langabezia-tasa altu horiek eragin dituzten elementuen artean, elkarren artean lotuta dauden hiru

LANGABEZIA EBn: ADIERAZLE NAGUSIAK 2013-2014						
	LANGABEZIA-TASA		GAZTEEN LANGABEZIA-TASA		EPE LUZEKO LANGABEZIAREN %	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014*
EB 28	10,9	10,2	23,7	22,2	47,4	49,9
Eurogunea	12,0	11,6	24,4	23,7	49,8	53,2
Belgika	8,4	8,5	23,7	23,2	46,1	49,8
Bulgaria	13,0	11,6	28,4	23,6	57,3	61,3
Txekiar Errepublika	7,0	6,1	18,9	15,9	43,4	43,8
Danimarka	7,0	6,6	13,0	12,6	25,5	25,4
Alemania	5,2	5,0	7,8	7,7	44,7	43,0
Estonia	8,6	7,4	18,7	15,0	44,5	43,4
Irlanda	13,1	11,3	26,8	24,0	60,6	57,6
Grezia	27,5	26,5	58,3	52,3	67,1	75,4
Espainia	26,1	24,5	55,5	53,2	49,7	53,4
Frantzia	10,3	10,2	24,8	24,3	40,4	43,2
Kroazia	17,3	17,0	50,0	45,0	63,6	61,5
Italia	12,1	12,7	40,0	42,7	56,9	63,1
Txipre	15,9	16,1	38,9	35,5	38,3	48,5
Letonia	11,9	10,8	23,2	19,6	48,6	42,7
Lituania	11,8	10,7	21,9	19,3	42,9	47,5
Luxemburgo	5,9	6,0	16,9	18,9	30,4	27,7
Hungaria	10,2	7,7	26,6	20,4	48,6	47,7
Malta	6,4	5,9	13,0	12,7	45,7	46,3
Holanda	7,3	7,4	13,2	12,7	36,1	40,4
Austria	4,9	:	9,2	:	24,3	27,1
Polonia	10,3	9,0	27,3	23,9	42,5	43,7
Portugal	16,4	14,1	38,1	34,8	56,4	60,1
Errumania	7,1	6,8	23,7	24,0	46,4	39,7
Eslovenia	10,1	9,8	21,6	21,7	51,0	52,6
Eslovakia	14,2	13,2	33,7	30,4	70,2	69,9
Finlandia	8,2	8,7	19,9	20,5	20,7	25,5
Suedia	8,0	7,9	23,6	22,9	18,5	19,4
Erresuma Batua	7,6	:	20,7	:	36,2	34,1
EAE	14,3	14,9	39,2	37,3	57,4	65,0

Iturria: EUROSTAT eta EUSTATen datuen arabera egina.

** Epe luzeko langabeziaren datua 2014ko III. hiruhilekoari dagokio.*

arlotatik eratorritako zenbait faktore aztertu beharko genituzke:

hezkuntzari eta prestakuntzari dagokiena, herrialdearen egitura ekonomikoarena eta lan-merkatuarena, dimentsio pertsonaletik, sozio-pertsonaletik eta testuinguruaren eta egituraren dimentsiotik aztertuta.

Era berean, kontuan hartu behar dira enpleguaren baldintzak eta inguruak, noiz sortzen den eta lehenengo urteetan nola garatzen den.

Prospektibaren arabera, bilakaera demografikoak eta bereziki Europako herrialdeen zahartzearen areagotzeak gazteentzako aukera gehiago sortuko ditu belaunaldien arteko erreleboarekin batera, baina enplegurako behar diren prestakuntza eta profila oraingoetatik desberdinak izango dira, inguru ekonomiko eta teknologikoa desberdina izango delako.

Izan ere, XX. mendearen azkeneko hamarkadetan hasi zen iraultza teknologikoak eragina izan du XXI. mendeko bizitzaren alderdi gehienetan: gure lagunekin eta senideekin "hitz egiteko" dugun modutik hasita, erosteko moduraino edo lan egiteko moduraino edo lekuraino. Komunikazio eta garraio zerbitzuak azkarragoak eta eraginkorragoak dira eta horri esker pertsonak, ondasunak, zerbitzuak eta kapitala mundutik mugi daitezke eta ondorioz, ekonomiak globalizatu egin dira. Ekonomiaren eta gizartearen eraldaketa horrek gaitasunak ere aldatzea eragin du.

Beste hitz batzuetan esanda, egoerak are garrantzi handiagoa ematen dio gazteriaren prestakuntzaren benetako bilakaerari, ez bakarrik burututako ikasketa mailari dagokionez, gaitasunen maila efektiboek dagokienez ere bai.

EAEEn ere antzematen da egoera hori baina kasu honetan, estatuko gainerako autonomia erkidegoetatik eta Europar Batasuneko herrialdeetatik bereizten duten berezitasunak ditu.

2- AZTERLANAREN HELBURUA

Azterlanaren helburua euskal gazteriaren oraingo eta etorkizuneko enplegarritasunaren eta lan-merkatutarako sarbidearen analisia egitea da, Europa mailako ikuspegi konparatzailetik.

3- AZTERLANAREN EDUKIA ETA FASEAK

1. kapitulua. Azterlanaren sarrera eta ikuspegi orokorra

Emateko epea hamabost egunekoa izango da, kontratua sinatzen denetik.

JARDUERA-TASAREN ETA LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA SEXUAREN ETA ADIN TALDEAREN ARABERA. URTEROKO BATEZ BESTEKOAK.

	JARDUERA-TASA			LANGABEZIA-TASA		
	2012	2013	2014	2012	2013	2014
Biztanleria >16	55,1	55,6	57,3	11,8	14,3	14,9
16-24	26,8	28,4	29,6	30,9	39,2	37,3
25-34	83,5	86,6	89,1	16,4	20,4	21,1
35-44	88,5	90,4	92,0	10,5	12,1	13,2
45-54	83,0	85,0	85,7	9,6	11,1	11,6
55-64	50,5	53,8	56,0	6,0	9,0	9,6
+64	1,0	1,2	1,2	0,0	5,6	1,9
Gizonak GUZTIRA	61,4	63,0	63,0	12,1	14,8	14,9
16-24	25,8	27,6	29,7	33,0	40,6	38,3
25-34	84,9	87,0	90,2	1,0	21,8	21,5
35-44	93,4	94,9	94,9	10,3	12,3	12,8
45-54	89,9	92,3	92,3	9,6	11,7	11,9
55-64	60,4	64,4	65,2	6,6	9,8	9,7
+64	1,5	1,7	1,4	0,0	3,1	0,0
Emakumeak GUZTIRA	49,3	50,6	51,9	11,4	13,8	14,9
16-24	27,9	29,3	29,4	28,8	38,1	36,2
25-34	81,9	86,3	87,9	14,5	18,9	20,6
35-44	83,5	85,7	89,0	10,7	11,9	13,7
45-54	76,2	77,8	79,3	9,6	10,3	11,4
55-64	41,0	43,9	47,4	5,1	8,0	9,5
+64	0,7	0,8	1,0	0,0	4,8	3,7

Iturria: EUSTAT, PRA.

Haren barruan lanaren helburuak, metodologia eta bibliografia, funtsezko kontzeptuak eta aurkibide xehea sartuko dira.

Ezinbestekoa da kontzepturik garrantzitsuenen artean “enplegarritasuna” kontzeptuaren definizioa bera biltzea. Aurki ditzakegun adiera desberdinen artean, probabilitatearen zentzua duen hura da aukeratutakoa. Horrenbestez, lan-merkatura sartzeko eta bertan mantentzeko probabilitate modura ulertuko litzateke enplegarritasuna, pertsonen gaitasunei, enpresen eta enplegurako zerbitzu publikoen baldintzapenei eta gizartearen eta laneko inguruaren baldintzei erantzunez, aldatuz doan inguru batean.

16-34 urte bitarteko biztanleria hartuko litzateke biztanleria gaztetzat baina kontuan izan behar dugu pertsona gazteen kolektiboa ez dela existitzen edo gutxienez ez dela kolektibo homogeen bat. Edonola ere, analisiek kontuan hartu behar dute biztanleria gaztea eta argi bereizi behar dute adin mailen (16-20, 21-25, 26-30, 31-35), sexuaren eta hezkuntza mailaren arabera, arazoak eta irtenbide posibleak desberdinak izango direlako. Hezkuntzaren edo gaitze profesionalaren alorrean edo lan-merkatura sartzeko (enplegu babestua) premia bereziak dituzten pertsona gazteak ere bereizi beharko dira.

Denbora esparrua 2000tik 2014ra bitartekoa izango litzateke, 2020-2025era ere begira. Dena den, neurriko enpleguaren tankerako zenbait alderdiren analisisian, Euskadiko EGABek 2011n egindako “Hezkuntza-sistema EAEko jarduera sozio-ekonomikoaren premietara egokitzea” azterlana oinarritzat hartzea proposatzen da. Azken horretan Lan-heziketako ikasleek 2008an eta Euskal Herriko Unibertsitateko 2005eko promozioak izandako laneratzeari buruzko datuak aztertzen dira eta analisi honetan datu horiek eguneratzea planteatzen da.

2. kapitulua. Euskadiko pertsona gazteen egoera, demografiaren, hezkuntzaren eta lan-merkatuaren arabera

Gure Autonomia Erkidegoan demografiaren, hezkuntzaren eta lan-merkatuaren alderdi batzuen ezaugarriarik aipagarrienak aztertzean datza, 2020/2025 aldira arte joerazkoak direnak.

Alderdi demografikoak

Idazpuru honen helburua demografiak iraganean izan dituen, orain dituen eta etorkizunean izango dituen oinarritzko ezaugarriak eta joera nagusiak berrikustea da, EAEko pertsona gazteen kolektiboaren gehiengoari eragiten dietenak. Testuinguru horretan kontuan izan beharko da erretiroen ondorio den belaunaldien arteko erreleboa.

Beste gauza batzuen artean, EAEko 16-35 urte bitarteko biztanleriak (ondorengo adin tartean: 16-20, 21-25, 26-30, 31-35) 2000-2014 denbora tartean izandako bilakaera eta 2020-2025 aldirako aurreikuspenak aztertuko dira, bai kopuru absolutuetan eta bai guztizkoaren ehunekoetan, eta baita sexuaren arabera ere.

Hezkuntza-alderdiak

Biztanleriak azkeneko bi hamarkadetan jasotako hezkuntzaren maila hobetuz joan da eta jasotako hezkuntzaren batez besteko maila altuago hori gazteen kasuan egoera hobetu egin delako gertatu da, biztanleriaren gainontzekoaren egoerarekin alderatuta. Hala ere, aztertu beharreko zenbait adierazle daude, horietatik aterako direlako ondorioak ateratzeko orduan kontuan hartu beharko diren emaitzak.

Biztanle gazteen prestakuntza mailen bilakaeraren ikuspegi orokorra erakustea da helburua. Horretarako, 2000, 2008 eta 2014rako adierazle hauek aztertzea proposatu da, sexuaren, hiru adin tartean eta prestakuntza mailaren arabera:

- EAEko 16 urtetik gorako biztanleak, adinaren eta burututako hezkuntza mailaren arabera. Guztizkoaren gaineko portzentajea. Ezagutza arloen edo espezialitateen arabera bereizita.
- Eskola uztea. 18-24 urte bitarteko biztanleen ezkola-uztearen portzentajea irakaskuntza mailaren arabera (DBH, Batxilergoa, EMHZ, GMHZ, unibertsitate ikasketak, guztizkoa).
- Gazteen langabezia-tasaren eta eskola-uzte goiztiarraren arteko lotura.
- Gutxienez Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa (CINE 3) amaitu duten 20 eta 24 urte arteko biztanleen ehunekoa.
- Goi mailako ikasketetako graduazio-tasa (GMHZ eta unibertsitateko ikasketak). Lanbide/ezagutza arloen edo espezialitateen arabera bereizita.
- Graduazio-tasa Zientziaren eta Teknologiaren alorreko goi mailako hezkuntzan. Ezagutza arloen edo espezialitateen arabera bereizita.
- Trebakuntza duala.
- Formala ez den hezkuntzan/prestakuntzan parte hartzea.

Lan-merkatuaren alderdiak

Gazteek lan-merkatuan bizi duten egoera erlatiboa aztertzea da helburua, parte-hartzeari, enpleguari eta langabeziari dagokienez. Adierazle hauek barne hartuko ditu, 2000, 2008 eta 2014rako eta sexuaren eta lau adin tartearen arabera banatuta (16-20, 21-25, 26-30, 31-35 urte eta GUZTIZKOA):

- 16tik 35 urtera arteko biztanleen portzentajea lan egiteko adinean dagoen biztanleria, biztanleria aktiboan eta lanean dagoen biztanlerian.
- Jarduera-tasa eta langabezia-tasa, adin tarteka.
- Hezkuntza maila eta lan ibilbideen bilakaera
 - Lanean dagoen biztanleria eta langabezia-tasa burututako ikasketa mailaka. Ezagutza arloen edo espezialitateen arabera bereizita. (adin tartean banatuta: 16-20, 21-25, 26-30 eta 31-35 urte).
 - Lan egiteko adinean dauden biztanle gazteen ikasketa maila (kalifikazio posiblea: Lehen Hezkuntzarik behera, Lehen Hezkuntza, DBH, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa, goragokoa) eta jarduerari dagokionez bizi duten egoera (ez dira aktiboak baina ikasten daude, ez dira aktiboak baina ez daude ikasten, aktiboak, lanean daude, langabezian daude). Ezagutza arloen edo espezialitateen arabera bereizita.
 - Lanean dauden biztanleek duten lanaren deskribapena (lanbidekako banaketa, mailak, ordainsariak, kontratu motak).
 - Laneratzeko tresnak (bekak, lanaldi partzialeko kontratuak, politika aktiboak...)
 - Biztanle gazteen arteko behin-behinekotasuna hezkuntza mailaren arabera desberdintasunak.
 - Bestelakoak

3. kapitulua. Enpresa-sarearen eta enpleguaren oraingo eta etorkizuneko ezaugarriak

Kapitulu honen helburua lanbideen bilakaera aztertzea da, aldaketa teknologikoen eragina eta lanbideetan egon daitekeen hazkuntza kontuan hartuz.

Enpleguaren sektorekako analisia egingo da (nekazaritza, industriako jarduerak, merkatukoak diren zerbitzuak eta ez direnak, JESNren bi digituen arabera bereizita, kasu zehatz batzuetan hirugarren mailara heldu behar izatea suerta litekeen arren), 2000-2014 aldiarena, hazkunde-etapak, krisialdiak eta berreskuratze ekonomikoaren etapak bereiziz eta 2020-2025erako aurreikuspenak egiten saiatuz, bai biztanleria osoa eta bai biztanleria gaztea kontuan hartuta.

Era berean, biztanle gazteen lanbideen patroia aztertuko da, Lanbideen Sailkapen Nazionalari jarraituz. Ahal izanez gero, lanbide horiek bereizi egin beharko dira.

Bestalde, sortu den, sortzen den eta sortuko den enpleguaren kopurua eta nolakotasuna zehazteko, enplegu eskakizunaren profila aztertuko da. Horretarako kontuan hartuko da arestian aipatutako aldaketa teknologikoen izandako eragina eta lanbideek sektoreka izan dezaketen hazkundera.

Sortu den, sortzen den eta sortuko den enplegu kopurua eta bere nolakotasuna zehazteko, iturri ofizialak erabiliko dira, esate baterako estatistika ofizialak, enpleguaren begiratokiak (SEPE, GAZTERIA...) eta EGK. Horiez gain, **landa-lanak egitea proposatu da, EAEko enplegatzaileei egin beharreko inkesta bat barne.**

Prospektibak enpresen ikuspegia eta sektore publikoarena hartuko ditu kontuan, ikuspuntu konparatzailetik gehienbat, eta tarteko beste eragile batzuek izan dezaketen informazioa ere kontsideratuko da. Bibliografia zabala dago enpresen ikuspegiaren inguruan baina gomendagarria litzateke euskal enpresen ikuspegia sakondu eta osatuko duen lan berria egitea.

4. kapitulua. Prestakuntza eta trebakuntza: beharrezko gaitasunak

Arestian adierazi bezala, ekonomian eta gizartean izandako eraldaketek gaitasunen eskaeran aldaketak egotea eragin dute. Manufaktura eta beste zeregin batzuk automatizatuz joan direnez, ez dago horrenbesteko beharrezko gaitasun ohiko gaitasun kognitiboetarako. Aldi berean, hazi egin da pertsonen arteko harremanetarako gaitasunaren eta maila altuko ezaguera eta informazio prozesatzeko gaitasunaren eskaera. Lanbide bakoitzerako behar diren gaitasunak izateaz gain, XXI. mendeko langileek informazioa prozesatzeko gaitasuna eta gaitasun "generikoak" izan behar dute, pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna, norbera kudeatzekoa eta ikastekoa barne, etengabe aldatzen ari den lan-merkatu honetako ziurgabetasuna hobeto eramaten laguntzeko.

Kapitulu honen helburua gaitasun horiek ahalik eta gehien zehaztea da, duela gutxi curriculumei buruzko dekretu berriak argitaratu direla gogoan hartuz. Dekretu horiek gauzatzeko egindako lana ere gogoan hartu beharrekoa da.

Erabilgarri dauden iturri ofizialez gain, **aipatutako inkesta** zehaztapen horiek egiteko **tresna garrantzitsua izango da.**

5. kapitulua. Enplegu eskaintzaren eta eskaeraren arteko adostasuna/desadostasuna

Puntu honen helburuetako bat EAEko biztanle gazteek lortutako gaitasunen eta lan-merkatuan orain eskatzen diren gaitasunen eta etorkizunean (2000-2014 aldiari, prospektibarekin posible izanez gero) eskatuko diren arteko adostasun maila aztertzea da.

Hala, honakoak planteatu dira:

- Lanbide-heziketako aurreinskripzioak eta eskaintako plazak unibertsitateko ikasketetakoekin alderatzea.
- Ondorengoan analisia:
 - Lanbide-heziketako ikasleen laneratzea eta unibertsitateko ikasleena, ikasketa motaren arabera:
 - Enplegu-tasa
 - Neurriko enplegu-tasa
 - lehenengo lana aurkitzeko batez besteko denbora...
 - Kontratazioa eta Gizarte Segurantzako afiliazioa gazteen kolektiboaren kasuan, prestakuntza mailarik baxuena duten gazteek barne hartuta.
 - Ikasketen sailkapena laneratze mailaren arabera eta ikasketen eskaintzaren eta eskaeraren banaketaren arabera, sailkapen hori kontuan hartuta.
 - PIAACen lortutako gaitasunen maila (irakurtzeko gaitasuna, matematiketakoa...) eta ELGAN batez bestean erregistratzen direnak, eurogunean eta beste lurralde batzuetan.

Modu horretara, gaitasun-mailaren/subokupazioaren existentziaren eta irismenaren diagnostiko hobea egingo da.

- Lanean dauden biztanle gazteen azterlana, lanbide motaren arabera egina, lanbideen egituraren (arestian aipatutako Lanbideen Sailkapen Nazionalaren arabera) eta hezkuntza mailaren arteko adostasun/desadostasun maila zehazteko.

Analisi hori egin ostean, antzemandako egoera hobetzeko proposamenak planteatuko dira.

6. kapitulua. Gazteen migrazioa: talentuaren galera eta erakarpena EAEn

XXI. mendeko ekonomi globalizatuan, talentua lortzeko erronka nabari da herrialderik aurreratuenetan eta horrek eragina du gaitasun gehien dituzten pertsonen migrazio-fluxuetan. Mundu mailako joera horrek profil bakana du EBN, hura eratzeko itunaren bidez laneko mugikortasunerako askatasuna ezarri zelako.

Krisialdi ekonomikoak ez du eragin bera izan toki guztietan eta hori laneko barneko migrazio mugimenduetan islatu da. Prestatutako gazteen erakarpenak eragin garrantzitsua izan du langabezia-tasa baxua eta dinamismo ekonomiko handiagoa duten herrialdeetan.

Puntu honen helburua euskal gazteriaren migrazioaren eta pertsona horien profilaren ebaluazioa egitea da, gure Autonomia Erkidegoaren kasuan talentuaren erakarpena/atxikipena baloratzeko.

7. kapitulua. European erreferentziazkoak diren eskualdeekiko analisi konparatzailea

Kapitulu honetan lan-merkatua, gizartea eta hezkuntza antolatzeko elementuak eta politikak (STEM), lan- eta bizi-baldintzak (ahal den neurrian laneko ordutegiak, oporraldiak, amatasun eta aitatasun baimenen iraupena eta baldintzak, lana uztartzeko laguntza-politikak...) eta faktore instituzionalak (tartean politika aktiboak) aztertzea proposatzen da, Europatik hautatutako hiru eskualdetan gutxienez. Ostean EAEko errealitatearekin konparatu nahi da.

Eskualde horiek EA Erekin erkatzeko modukoak izan beharko dira eta ondo legoke EAEn pertsonak eta kolektiboak laneratzeko orduan daukagun “laneko eta gizarteko ingurua” lagungarria edo mugatzailea den ezagutzea eta hori neurtzea.

8. kapitulua. Laburpena, ondorioak eta gogoetak

Azterlanaren azken aurkibidea zabalik dago eztabaidatzeko eta, aholkularitza taldeak proposatu eta Euskadiko EGABek onartu ondoren, beste batzuk sar litezke, informazioa aztertu ondoren sortuko balira, edo aurkibide honetan jasotako baten batekin ordezkari litezke, garatzen den heinean eztabaidatu ahala, baita eskuragarri dagoen informazioaren arabera ere.

4- METODOLOGIA KONTUAK

Lehenik, Batzordearen osoko bilkurak beren-beregi horretarako sortutako Batzordeari esleitu dio Azterlana. Hura lanaren planteamendua, jarraipena eta kontrola (edukia, metodologia, aurkibidea, emate partzialak eta bilerak, bidean sortutako balizko birbideratzeak...) erabakitzeko bilduko da. Zentzu horretan, lanaren esleipendunak Lan Batzorde horri emandako zati bakoitzaren aurkezpenak egiteko konpromisoa hartuko du, azken horrek egokia iritziz gero.

Bigarrenik, bilatzen den helburua lana zerikusia izan dezaketen eragile guztientzat erabilgarria izatea da eta, beraz, ekimenak ikuspegi praktikoa eta sintetikoa du, ez teorizatzailea. Azken batean, amaierako txostena argia eta laburra izatea da, zerikusia duten eragileentzat orientatibidea eta gida izan dadin.

Hirugarrenik, jendeari zabalduetako tribuna bat egin nahi da. Haren kudeaketan, lanaren esleipendunak lagunduko du.

5- JARRAIPENA ETA KONTROLA

EGABen eta aholkularitza taldearen arteko harremana Euskadiko EGABek azterlanerako izendatutako arduradunaren bitartez gauzatuko da, edo hark eskuordetuta, kasu zehatz batzuetan.

Lanen jarraipena eta kontrola Euskadiko EGABek izendatutako azterlanaren arduradunarekin egindako bileren bidez egingo da zuzenean, hark erabakitako tokian eta egunean, baina gutxienez hilero lana egiteko ezarritako epean, kontratua esleitzen den egunetik aurrera.

Erakunde esleipendunek azterlanaren arduradunaren ikuskapen lana erraztu beharko dute, eskatzen zaizkien agiri guztiak emanez eta hari azterlana egin bitartean sortutako gertakari guztien berri emanez.

Aipatu den bezala, lanaren esleipendunek konpromisoa hartuko dute azterlanaren entrega bakoitza Euskadiko EGABen azterlanaren ardura duen Lan Batzordeari aurkezteko, hark egokia iritziz gero.

6- ZERBITZUA EMATEKO FORMATUA

- Dokumentuak formatu digitalean entregatuko dira, eta inprimatutako dokumentuetan Word formatua erabiliko da.
- Azterlana idazterakoan lengoaiaren erabilera sexista ekidin beharko da uneoro.